

Ikasturte hasierako guraso bilera orokorra

- HH5 -

Orereta-Erreterian, 2024ko urriaren 9an

1. AURKEZPENA

HH5A	Marijo Iraola / Iruñe Elgezabal
HH5B	Aurkene Astibia
HH5C	Ane Gartzia

Ingelesa: Ainhoa Albizuri

2. HIZAN PROIEKTUA

Badira urte batzuk Orereta Ikastola haur hezkuntzaren inguruan hausnarketa egiten hasi zela eta, horren ondorioz, haur hezkuntzako proiektua berriro egin da Ikastolen Elkarteko markoan oinarrituta. HIZAN HH proiektua pertsonen ongizatea helburu duen proiektua dela esan dezakegu, haurra gaitasunez beteriko pertsona dela oinarri hartuta eta munduaz ikasteko berezko gaitasuna duela sinetsita, lan egiteko moduak eta begiradak aldatzera datorrena.

Ez dugu zalantzarik, ongizateak testuinguru osasungarri baten beharra duela eta sistema hori familiek, Ikastola komunitateak, antolaketa arkitektonikoez, materialez eta batez ere, berdinekiko harremanek baldintzatuko dutela. Aldi berean, ongizate horren zutabe dira hezkuntza prozesuko esku-hartzeak, hala nola, haurren senei sentikortasunez eta egoki erantzutea; bere gaitasunak identifikatu, balioetsi eta erantzutea; eta zailtasunak hautemanda horiek kudeatzen laguntzea.

HIZAN HH proiektuan, haurra da bere ikasketen protagonista, beren gaitasunak garatuko dituen eta bide horretan, nola ez, helduon laguntza jasoko duena. Izan ere, bere gogo, plazer, interes eta beharrezkoetatik abiatuta dauden jarduerak eta ekintzak autonomoak dira haurren ikaskuntza eta garapen psikomotor, afektibo, sozial zein kognitiborako oinarri.

Haurrak airea bezain beste behar du jolasa, bizitzen ari den mundua ulertu eta kudeatzen ikasteko. Gure iritziz, jolasaren eta esperimendazioaren bitartez norberaren erritmoak errespetatzea lortzen da, autonomia, talde lana eta harremanak aberasten dira; eta guztiaren gainetik, haurrak bizitzan beharrezkoa izango duen konfiantza garatuko da.

Konfiantza eta segurtasunezko testuinguru batean, bertako helduengana hurbiltzeko zein atxikitzeko segurtasuna, ingurunea arakatzekoa, berdinkideekin harreman aberasgarriak izatekoa eta ikasteko aukera izango dute, bere gaitasunak garatzea ahalbidetuz. Egiteko eta ekiteko motibazioa eta ausardia konfiantzak ematen digula sinetsita, horixe da pedagogiaren oinarri jarri duguna.

Laburbilduz, HIZAN HH proiektua, hezkuntza gaur egungo jendartearen beharretara egokitzeko eta berau hobetzeko asmotan martxan jarritako proiektua da, zeina egitearen ekinez eraikiko dugun.

3. ETAPAKO KONPETENTZIAK

HIZKUNTZA ETA LITERATURA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA (euskara)

- “Euskaraz komunikatzea, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.”

HIZKUNTZA ETA LITERATURA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA (ingeleza)

- “Ingeleseaz, hitzeko lehen pausoak ematea; bizitzako hainbat egoeretan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.”

MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

- “Jakintza matematikoa erabiltzea bizitzako beharizanean dagozkien arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei erantzuteko.”

ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA

- “Objektu eta materialen manipulazioa, aldaketak eragiteko. Errealitatea ebidentzia zientifikotik ulertzea eta bizitzako esparru eta egoera guztietan erabaki arduratsuak hartzea.”

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

- “Nork bere burua, norberaren taldea, ingurua eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea.”

ARTERAKO KONPETENTZIA

- “Kultura eta arte-adierazpen desberdinak ezagutzea eta baloratzea. Artearekin gozatzea eta material ezberdinak ezagutu eta manipulatzeko, irudimenez eta sormenez adierazteko eta komunikatzeko.”

KONPETENTZIA MOTORRA

- “Norberaren nortasuna eraikitzea eta gorputza ezagutzea. Gorputz adierazpena erabiltzea komunikatzeko eta ideiak, emozioak...adierazteko.”

IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KONPETENTZIA

- “Ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeke. Ideiak sortzeko eta hautatzeko gaitasuna garatzea.”

ELKARBIZITZARAKO KONPETENTZIA

- “Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan parte hartzea da, hurbileko testuinguruan integratzeko.”

EKIMENERAKO KONPETENTZIA

- “Ekimenez jardutea, ekintzak planifikatu eta kudeatzea.”

NORBERA IZATEN IKASTEKO KONPETENTZIA

- “Bere irudia eta dimentsio pertsonalak eraikitzea.”

4. ZERO UNITATEA

Konpetentzia emozionalen garapenaren bidez, ikasleek estrategia emozional desberdinak erabiltzen ikasten dute eskolan eta eskolatik kanpo; familian eta gizartean egoera emozional zailei aurre egiteko: enpatia, gatazken ebazpena, erregulazio emozionala... Emozioak eta estrategia emozionalak irakatsi eta ikasi egin daitezke.

Ikasturte hasieran, 0 unitatea landuko dugu orientazio departamentuarekin elkarlanean. Jolas kooperatiboak, ipuinak eta jarduera didaktikoak egingo ditugu haurren egoera sozial, emozional eta linguistikoa behatu eta lantzeko.

Bakarkako elkarrizketetan emango zaizue familiei egindakoaren berri.

5. BASO-ESKOLA

Añabitarten dugun inguru paregabeari esker, baso-eskolan aritzeko aukera dugu; hamabost egunean behin, goiza gure basoan igaroz. Baso-eskola, naturan garatzen den hezkuntza eredu da. Haurrek, basoan edo ingurune natural batean jolastuz, ikertu eta ikasten dute. Helduek behatzaile papera jokatzen dute bertan, haurrak lagunduz, ez gidatuz.

Informazio gehiago nahi izanez gero, web orrian topatuko duzue. Hona hemen lotura: <https://oreretaikastola.eus/familiak/ikastolako-baso-eskola/>

6. URTXINTXAKO GAIAK

	5 urte
1. hiruhilekoa	MUNDUARI BIRAKA <ul style="list-style-type: none"> • Bidaiak • Garraio motak • Munduko eraikinak • Kontinenteak eta haien ezaugarriak • Munduko arraza ezberdinak

	<ul style="list-style-type: none"> • Munduko janariak, musika motak... Ipuina: Gulliver
2. hiruhilekoa	HORRELAKOA NAIZ <ul style="list-style-type: none"> • Gorputza • Emozioak • Familia dibertsitatea • Gure jaiotza • EHko inauteriak Ipuinak: Ahatetxo itsusia eta Ziripot eta Miel Otxin
3. hiruhilekoa	KALEAN GORA, KALEAN BEHERA <ul style="list-style-type: none"> • Gure herria • Eraikinak • Auzoak • Lantegiak • Herriko pertsonaiak Ipuina: Erraldoi berekoia

7. EUSKARA

Orereta Ikastolako sorrera-helburua euskara eta euskal kulturaren transmisioa eta sustapena dira. Etengabeko jarduerak eta kanpainak aurrera eraman arren, helburua betetzeko zailtasunak agerikoak dira Orereta Ikastolan eta euskararen lurralde osoan. Euskaraz Bizi egitasmoa berrikusi eta ikasleen aitzindaritzza suspertuz dinamika desberdinak jarri genituen indarrean. Irakasle eta langile guztiok konpromiso argia hartzen dugu euskararen erabileraren alde eragiteko, baita dagozkigun arloetan formazioa hobetzen jarraitzeko ere.

Gurasoen kasuan, ikasleen hizkuntz erabileran familiak duen garrantzia bereziki azpimarratu nahi dugu.

Guraso euskaldunek beren artean euskara erabiliz modurik eraginkorrena dute seme-alabengan ahalik eta hizkuntz erabilera eta gaitasun onena ziurtatzeko. Zaindu hizkuntza bizitzaren esparru guztietan.

Guraso erdaldunek ere, euskararekiko interesa erakutsiz eta seme-alaben arteko euskarazko erabilerak oro har sustatuz (euskarazko komunikabideak, adibidez), seme-alaben euskararen erabileran modu positiboan eragin dezakete. Zer esanik ez euskara ikastera animatzen badira.

8. ZUBIAK ERAIKIZ

2016an sinatu genuen Zubiak Eraikiz hitzarmena Ipar Euskal Herriko lau ikastolarekin: Hendaia, Ziburu, Urruña eta Biriaturkoekin. Azken urteetan Berako Labiaga eta Lesakako Tantirumairu Ikastolekin (Nafarroa) ere estutu dugu harremana.

Hitzarmenaren helburua

Lurralde administratibo ezberdinetan kokatuta egonik, helburua elkarrengana hurbiltzeko zubi bat eraikitzea da. Horregatik, gure Ikastoletako ikasleak, irakasleak, langileak eta gurasoak harremanetan jarri nahi ditugu, euskara ardatz hartuta; Lapurdiko, Nafarroako eta Oarsoaldeko eremu euskalduna osatzen dugun pertsonen arteko loturak indartzeko eta elkarrekin hainbat arlotako ekintzak aurrera eramateko.

9. IKASTURTEAREN ANTOLAKETA

9.1. Eskola ordutegia

Goizez	09:00/09:30 (sarrera malgua) - 12:30
Arratsaldez	14:45 /15:00 (sarrera malgua) - 16:15

Ikastolara gogoz eta lasai etortzeko, aproposena eguneroko errutinei eta harremani giro eta denbora egokia eskaintzea da: esnatzeko, gosaltzeko, janzteko eta garbitzeko denbora... Goizeko ordutegi malguak hori guztia ahalbidetzea du helburu.

9.2. Kontaktua

Tutorearekin telefonoz harremanetan jartzeko, aurretik hitzordua adostea komenigarria da. Deitzeko ordu egokiena: 8:45 - 9:00 (Tel.: 943 96 77 48 (Orereta Txiki))

9.3. Bilerak

Orokorrak: ikasturte hasieran eta bukaeran. Bakarkakoak: azaroan eta ekainean.

9.5 Ingelesa

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
Goizez	Ane	Irune Ane Aurkene		Ane Aurkene Irune	
Arratsalde	Aurkene Irune				Ane Irune

9.6. Ekintza osagarriak

Jai eta ospakizunak	Irteerak
<ul style="list-style-type: none"> - Gau Beltza - Euskararen Eguna - Maridomingiri bisita - San Tomas - Gabon koplak - Santa Ageda - Inauteriak - MOreretaON - Euskaraldia - Ikastola Eguna 	<ul style="list-style-type: none"> – Azpeitiko tren museoa (urriak 31) – Orkestra sinfonikoa: Ilargiari Kantari (otsaila) – Topic, Tolosako txontxongiloen museoa (otsailak 7) – Tinko zinema : Arratoi Pirata (maiatzak 13) – Eskolatik antzokira (ekaina) – Ikasturte bukaerako irteera – Ingeleseko Antzerkia, Ikastolan bertan. <i>“The magic machine”</i> (ekainak 3)

10. ORERETA IKASTOLAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

- Maddalen Iriondo (HH eta LH)
- Goizargi Iglesias (DBH)

PEDAGOGIA TERAPEUTIKOKO ESPEZIALITATEA DUTEN IRAKASLEAK

- Idoia Oiartzabal - Ainhoa Otegi (HH-LH)
- Maialen Gurrutxaga (LH)
- Amaia Olaso (LH)
- Esther Gutierrez - Nerea Maiz (DBH)
- Irati Cristobal (DBH)

HEZIKETA LAGUNTZAILE ESPEZIALISTAK

- Ani Bengoetxea (HE)
- Maite Inziarte (HH)
- Aitor Franco - Laura Ruiz (HH- LH)
- Oihana Latasa (LH)
- Uxue Louvelli (LH- DBH)

ORIENTAZIO DEPARTAMANTUAREN HELBURUAK

Orientazioa etengabeko laguntza prozesua da eta helburu du ikasleei oinarrizko kompetentziak eskuratzen eta bere proiektu pertsonala garatzen laguntzea.


Hau dela-eta, Orereta Ikastolako orientazio departamentuaren eginkizun nagusia hezkuntza orientazioa sustatzea da, curriculum osoan eta ikasle guztiekin. Departamentu honen jarduna bi prozesuetan gauzatzen da, gehien bat:

Tutoretza eta orientazioa

Tutoretza eta orientazioa jarduera multzo bat da, gela barruan zein kanpoan landuko dena, eta ikasleei beren garapenean lagunduko diena, hain zuzen ere: bere burua ezagutzen eta onartzen (garapen pertsonala), sozializazio prozesua hobetzen (garapen soziala), ikasketak aurrera eramaten (ikaskuntza prozesuak) eta etorkizunerako erabakiak hartzen (lanbide orientazioa).

Aniztasunari erantzuna

Ikasleen behar desberdinei erantzun ahal izateko egon daitezkeen neurri eta programa multzoa da, oinarritzko kompetentziak ahalik eta gehien garatzen laguntzeko.



11. GURASO BATZORDEA

ZER DA GURASO BATZORDEA?

Familien ikuspuntua eta iradokizunak helarazteko Ikastolak duen organoa da, seme-alaben hezkuntza prozesu guztian zehar parte hartzeko aukera ematen duena.

Ikastolako partaide eta profesionalekin komunikazio **zuzena** eta **azkarra** izateko (zuzendaritza, zerbitzuak, irakasleak, beste gurasoak...). **EZ** du komunikazio ofiziala ordezkatzen.

NORK OSATZEN DUTE?

HH etapako ikasleen gurasoek.

- Gela bakoitzean gutxienez ordezkari bat.
- Guraso taldea sortzen bada, HOBE. Bileretara txandaka joatea eta informazioa zabaltzea errazten du eta. Ordezkari bat baino gehiago dauden getetan elkarlana erraztu egiten da.
- OSO GARRANTZITSUA da gela bakoitzak guraso ordezkariak izatea.

ZENBATERO IZATEN DIRA BILERAK?

Hilabetean behin, 17:30ean Linoko egoitzan.

- Normalean, hilabeteko 3. astelehenean izaten da.
- Bi helburu:
 - Ikastolatik datorren informazioa jasotzea (Artezkaritzatik eta Hezkuntza Batzordetik)
 - Gurasoen eskaera eta iradokizunak Ikastolara helaraztea.

GAIAK

- Eguneroko kezken bideratzea
- Ordutegiak eta egutegia adostea
- Ikastolak antolatzen dituen jaialdi eta festa egunetarako familien inplikazioa sustatzea
- Ikastolaren proiektuen jarraipena (pedagogia berria, baso-eskola...) egitea eta proposatzen diren ekintzez hausnartzea.

12. FAMILIA LAGUNA

Herriko ikastetxeetan aurrera eramaten ari garen egitasmo baten berri eman nahi dizuegu. Kulturartekotasuna lantzeko programa honek “Familia Laguna” du izena eta ondorengo helburuak ditu: ikastetxeko familien arteko kulturarteko harremanak sustatzea, ikastetxean izena ematen duten atzerriko familien akonpainamendua; eta euskararen sustapena, bai ikastetxe baita herri mailan ere.

“Familia Laguna” programan, familia euskaldunek beste herrialde edo erkidego batetik datozen familiei borondatezko akonpainamendua ematen diete. “Familia laguna” hauen eginkizun nagusia etorri berri diren familiei ikastetxeko funtzionamenduaren eta herriko baliabideen berri ematea, ikastetxeko guraso gehiago aurkeztea, eta euskal kultura eta euskararekiko sustapena aurrera eramatea da.

Programa hau Aitor Ikastolan jarri zen martxan 2015. urtean, oso emaitza onak lortuz. Gero, Gipuzkoako beste 10 eskola gehitu ziren programara. Bertako familiek eta beste jatorri batzuetako familiek ongi baloratu dute programa. Iritsi berri diren familientzat oso lagungarria izan da bertako familia baten laguntza, bai auzoko edota herriko harremanak irekitzeko, bai eskolaren eta udalerrriaren funtzionamenduaren berri izateko. Seme-alabek eta gurasoek beraiek ere hobetu dute euskararekiko motibazioa eta ikasketa.

Programa aurrera eramateko zuen kolaborazioa beharrezkoa da. “Familia laguna” izateko zuen izena eman dezakezue: beste kultura batzuk ezagutzeko, beste jatorri bateko familietan euskararen sustatzea bultzatzeko, bi kulturen arteko zubi lana egiteko eta beste jatorri bateko familien egokitzapena, bai ikastetxe mailan bai herri mailan, xamurragoa egiteko.

Aipatu, programak ikasturte bateko iraupena izango duela: irailean hasi eta ekainean amaituko da.

Informazio gehiago: errenteria.ongetorrieskolara@gmail.com

13. ERANSKINAK

13.1. Urtebetetzeak

Ikasleek beren urtebetetze egunean lagunei banatzeko zerbait ekartzekotan, guztiok elkarrekin jateko moduko zerbait izango da: bizkotxo, patata-tortila edota antzekoren bat. Horrela, egun horretako hamaiketako urtebetetzea ospatzen duenak ekarritakoarekin beteko genuke.

Proposamena hori izateko arrazoi ezberdinak ditugu:

- Ikasleen osasuna: litxarrera ugari jatea ez baita komeni.
- Bereizkeriak baztertzea: gelan guztiok gure urtebetetzea era berean ospatzea bermatzea.
- Jarrera kontsumistak baztertzea: ospakizunari garrantzia emanez eta ez ikasleak ekartzen duenari.
- Hondakin gutxiago sortzea: proposatzen ditugun bideek oso zabor gutxi sortzen dute.

Hau guztia dela eta, hemendik aurrera, zuen seme-alaben urtebetetzeak proposatutako moduan ospatuko ditugulakoan, gozokirik ez ekartzeko eskatuko dizuegu. Guztion onerako dela uste dugu.

13.2. Gaixotasunak

Haurra gaixorik dagoenean, arreta eta baldintza bereziak behar ditu; Ikastolak eskaintzen ez dituen arreta eta baldintzak, alegia. Gaixoaldian Ikastolara etortzeak, beste haurrak kutsatzeko arriskuaz gain, bakoitzaren sendatze prozesua atzeratzen du.

Ikastola infekzio-fokua izan ez dadin, haurrak ez dira Ikastolara ekarri behar ondorengo sintomak izanez gero:

- Goizean ondoeza, mina edo sukarra.
- Beherakoa.
- Oka egitea, ezohiko moduan.
- Eritasun eta gaixotasun kutsakorak (konjuntibitisa, eskarlatina, onddoak, barizela, inpetigoa...).
- Eztarriko edo belarriko infekzioa.
- Antibiotikoekin tratamenduan daudenean, eta 24 ordu pasa ez direnean tratamenduarekin hasi zirenetik.

Haurrak, gutxienez, 24 ordu pasa behar ditu sukarrrik gabe Ikastolara itzuli aurretik.

Haurrak botika edo substantziaren bati alergia izanez gero, berehala jakinarazi beharko zaio Ikastolari.

Gurasoek botikak Ikastolako ordutegitik kanpo ematen saiatu behar dute. Ikastolan eman behar izanez gero, ordutegia eta dosia zehazten dituen pediatriaren txostena eskatuko da.

Haurrak ohikoa ez den zerbait duenean, familiek ahalik eta lasterren jakinarazi beharko diote Ikastolari.

Era berean, hurren bat Ikastolan ondo ezik balego, berehala jakinaraziko zaie gurasoei edo premiazko kasuetarako adierazitako pertsonari, Ikastolara jasotzera etor daitezten.

13.3. Zorriak



Eskola garaia iristearekin batera hurren artean zorri infekzioak berragertu ohi dira, kasurik gehienetan hurrek higiene neurri egokia izan arren. Zorriak bere ostalariaren erabateko dependentsia du, bai elikatzeko, bai bizitzeko. Erraztasun handia dute pertsona batengandik beste batengana pasatzeko, ukipen txikiena aski izan daiteke. Zorri edo bartzek kutsaturiko arropa, orrazi, kapela edo edozein objektu erabiltzea aski izan daiteke kutsatzeko.

Garai batean zorri kutsadura higiene eskaseko biztanleriaren artean sortzen bazen ere, zorriek nahiago dute azal garbian bizi, eta ondorioz, arrunta da higiene neurri egokiak dituztenek ere zorriak izatea.

Ongi garbituriko buruetan nekez agertu ohi dira gorputz-zorriak. Ohikoena burukoak dira, eta bereziki 6-10 urte bitarteko haurretan azaltzen dira.

Nagusiki, gizakiok izan ohi ditugun zorriak bi dira: gorputzekoak eta burukoak. Burukoak gehienetan atzealdean agertzen dira, eta nahiago dituzte luzera ertaineko ileak, ez luzeak ez motzak. Gorputzekoak, berriz, torax edota besapeko ile artean ibiltzen dira, baita arropa ehunen zuntz artean ere.

Zorriak ziztatzean injektatutako txistuak azaleko hipersentiberatasuna sortzen du; ondorioz, handitu egiten da eta azkura eragiten du. Azkura dela eta, hazka egiten dugu eta gehiago handitzen da, eta, beraz, bakterio infekzioak errazten ditu. Negal, zarakar edota zorne-jarioa ere ager daitezke.

Badira zenbait gai zorriak akabatzeko egokiak. Ez dira kosmetikoak, benetako bioazidoak baizik, eta arrazoi horregatik erabilera arauak zorrotz errespetatu behar dira. Tratamendua egin ondoren bartz eta hildako zorriak kontu handiz kendu behar dira, honetarako bereziak diren hartz estudun orraziak erabiliz.

Kutsatuta dagoen inguruko buruak ere miatu behar dira: ikaskideak, senideak... Ikastolari horren berri ematea ezinbestekoa da. Arropak ur berotan garbitu behar dira eta, aukera izanda, lehortu ere bai. Orrazi eta gainerako tresnak ordu-erdiz beratzen eduki behar dira intsektizida disoluziotan.